

PSIKOLOGIA

Sergio MORO DUARTE

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien
ikaskuntza integratua ikastetxe
eleanitzetan

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria
/
LehenHezkuntzakolrakasleenGradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza
Integratua ikastetxe eleanitzetan

Sergio MORO DUARTE

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Sergio MORO DUARTE

Izenburua / Título

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratua ikastetxe eleanitzetan

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria/ Director-a

Pablo SOTÉS RUIZ

Saila / Departamento

Psikologia/Psicología

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak bidea eman digu ikastetxe eta hezkuntza erakunde desberdinen funtzionamendu eta lankidetzaz ulertu ahal izateko. Gainera, irakasleek gizartean betetzen duten paperaren garrantziaz ohartarazi gaitu. Irakasleen papera momentuoro aberasten eta berriztatzen joatea da gizartearen beharrei eta ikasleen ikaskuntzari modu egoki eta eraginkorrean erantzuteko.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak curriculuma aztertzen eta unitate didaktiko eta ekintza desberdinak diseinatzen lagundu gaitu. Edukiak botatzea erraza da, bermatu behar dena ikasleek hauek barneratu dituztela eta beraien eguneroko bizitzan arazoei aurre egin eta ezagutza berriak erabiltzeko gai direla da. Hau lortzeko berebiziko garrantzia dauka nola irakasten den.

Halaber, Practicum modulua/ak eskolen funtzionamendua gertutik ezagutzea ahalbidetu digu ikasleei, nolakoa den ikastetxeen egunerokotasuna. Gainera gure curriculum ezkutua aberasteko baliogarria izan da.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da “Unidad didáctica” atala, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gratu Amaierako Lan honetan, Nafarroako Foru Komunitatean, curriculumeko edukietatik abiatuta, irakasgai bat edo gehiagoren edukiak hizkuntza gehigarri batean irakastearen sustapena aldarrikatzen da. Honetarako, lana bi ataletan zatitzen da: atal teorikoa eta atal praktikoa.

Atal teorikoan Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratuaren metodologiari gerturatze bat egiten zaio eta gaur egungo hezkuntza sistemarako eta irakasle lanbiderako zergatik den garrantzitsua azaltzen da. Jarraian, testuinguru desberdinen arabera, Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratuaren ereduak azaltzen dira. Ondoren, Hizkuntzen Triptikoa azaltzen da, edukia hizkuntzen ikaskuntza eta erabilerarekin modu kognitiboan integratu behar dela kontutan hartzeko eraikia izan dena. Bukatzeko, Unitate Didaktikoen prestakuntzarako kontutan hartu beharreko 4C markoaren elementuak azaltzen dira.

Atal praktikoa dagokionez, marko teorikoan kontutan hartzen den eta metodologia honetan oinarritzen den, Ingurune irakasgaiko gai baten Unitate Didaktikoa zehazten da.

Hitz gakoak: EHGII; Hizkuntza gehigarria; Komunikazio hizkuntza; Hizkuntzen Triptikoa, 4C markoa.

Resumen

En este Trabajo de Final de Grado, se promueve la enseñanza de los contenidos del curriculum de una o más asignaturas en un idioma adicional, en la Comunidad Foral de Navarra. El trabajo se divide en dos apartados: el apartado teórico y el apartado práctico.

En el apartado teórico, se hace un acercamiento a la metodología en la que se basa el Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas Extranjeras, explicando su importancia en el sistema educativo de hoy día y en la docencia. A continuación, se explican los diferentes modelos de esta metodología según el contexto. Después, se explica el Tríptico de Idiomas, que se diseñó para tener en cuenta que el contenido debe integrarse de un modo cognitivo con el

uso y aprendizaje del idioma. Para finalizar, se explica el marco de las 4 C, el cual es importante para el desarrollo del diseño de una Unidad Didáctica AICLE.

En el apartado práctico, se expone una Unidad Didáctica sobre un tema de Conocimiento del Medio, el cual se basa en el marco teórico anteriormente expuesto.

Palabras clave: AICLE; Idioma adicional; Idioma vehicular; Tríptico de Idiomas; Marco de las 4C.

Abstract

This dissertation promotes teaching one or more subjects in additional language, in Navarra. The dissertation consists of two parts: the theoretical part and the practical part.

In the theoretical section there is an approach of Content and Language Integrated Learning, explaining its importance in the Educational System and teaching. Next, there is an explanation about the different models of CLIL depending the context. After that, there is an explanation of The Language Triptych, which was designed to take into account that the content must be integrated in a cognitive way with the use and learning of language. To finish with the theoretical part, there is an explanation of the 4C framework, which is very important to design CLIL teaching units.

In the practical section, there is an example of CLIL teaching unit which is about one term of Natural Science.

Keywords: CLIL; Additional language; Vehicular language; The Language Triptych; The 4C framework.

Aurkibidea

Sarrera	1
1. Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratuari gerturatzan	3
1.1. Zer da Eduki eta Hizkuntza Gehigarriaren Ikaskuntza Integratua?	3
1.1.1. EHGIIren definizioa	4
1.2. Zergatik da EHGII gaur egungo hezkuntzarako garrantzitsua?	5
1.3. Zergatik da EHGII irakaskuntza lanbidean garrantzitsua?	6
2. Curriculumaren aldaketak EHGIIn	9
2.1. Faktore eragileak	10
2.2. Eskala	11
2.2.1. Komunikazio hizkuntzaren bitarteko jarraibide estentsiboa	11
2.2.2. Komunikazio hizkuntzaren bitarteko instrukzio partziala	12
2.3. Lehen hezkuntzako eredu curricularra	13
2.4. Lehen hezkuntzako ereduak	15
2.4.1. A1 eredu: Norbanako konfiantzaren eraikitzea eta kontzeptu gakoien sarrera	16
2.4.2. A2 eredu: Kontzeptu gakoien eta ikaslearen autonomiaren garapena	18
2.4.3. A3 eredu: EHGII hizkuntzan irakatsiko den irakasgaiaren prestakuntza	18
3. EHGII kontzeptu teoriko gisa	19
3.1. Edukien ikaskuntza eta hizkuntzaren ikaskuntza lotuz	20
3.1.1. Edukien ikaskuntza	20
3.1.2. Edukien ikaskuntza: Sinergiak, aldazio eta giza interakzioa	21
3.1.3. Edukien ikaskuntza: konpromiso kognitiboa, arazoaren ebazpena eta goi mailako pentsaera	22
3.1.4. Zehaztutako curriculum: prozesuak eta dimentsioak	23
3.2. Ikuspegi alternatibo bat hizkuntza erabiliz ikasteko	26
3.2.1. Ikaskuntzaren hizkuntza	29
3.2.2. Hizkuntza ikaskuntzarako	30
3.2.3. Hizkuntza ikaskuntzaren bitartez	31
3.3. Kontzientzia kulturaletik kultura arteko ulermenera	31
3.4. Mapen integrazioa: 4C Markoa	33
4. Unitate baten plangintza	35
4.1. 4c markoa	35
4.1.1. Edukia- Contenido	36
4.1.2. Komunikazioa- Comunicación	36
4.1.3. Kognizioa- Cognición	37
4.1.4. Kultura- Cultura	37
4.2. Unitate bat prestatzeko lau pausuak	40
4.2.1. Lehenengo pausua: edukia kontutan hartzea	40
4.2.2. Bigarren pausua: Edukia eta kognizioa lotzea	40
4.2.3. Hirugarren pausua: Komunikazioa – Hizkuntzen	41

erabilera eta ikaskuntzaren definizioa	
4.2.3.1. Ikaskuntzaren hizkuntza (Language of learning)	43
4.2.3.2. Hizkuntza ikaskuntzarako (Language for learning)	43
4.2.3.3. Hizkuntza ikaskuntzaren bitartez (Language through learning)	44
4.2.4. Laugarren pausua: Aukera kulturalak eta kontzientzia garatzea	44
4.3. Unitatearen prestakuntza	45
5. UNIDAD DIDÁCTICA	47
5.1. Descripción general de la planificación didáctica	47
5.1.1. Competencias básicas	48
5.1.2. Objetivos	48
5.1.2.1. Objetivos de etapa – LOE	48
5.1.2.2. Objetivos Generales del Área/ materia para primaria - Real Decreto	49
5.1.2.3. Objetivos didácticos diseñados	49
5.1.2.3.1. Objetivos conceptuales	49
5.1.2.3.2. Objetivos procedimentales	49
5.1.2.3.3. Objetivos actitudinales	49
5.1.3. Contenidos	49
5.1.3.1. Contenidos conceptuales	49
5.1.3.2. Contenidos procedimentales	50
5.1.3.3. Contenidos actitudinales	50
5.1.4. Estrategias metodológicas	50
5.1.5. Criterios de evaluación	51
5.2. Planificación general de las sesiones	52
5.3. Planificación de cada una de las sesiones	53
5.3.1. SESIÓN 1: INTRODUCCIÓN DE LA UNIDAD	53
5.3.1.1. Descripción de la actividad	53
5.3.1.2. Organización pedagógica	54
5.3.1.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	55
5.3.2. SESIÓN 2: THE PLANT'S FOOD	55
5.3.2.1. Descripción de la actividad	55
5.3.2.2. Organización pedagógica	56
5.3.2.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	56
5.3.3. SESIÓN 3: REPRODUCTION OF PLANTS	57
5.3.3.1. Descripción de la actividad	57
5.3.3.2. Organización pedagógica	58
5.3.3.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	58
5.3.4. SESIÓN 4: I VALUE MY WORLD	59
5.3.4.1. Descripción de la actividad	59
5.3.4.2. Organización pedagógica	59
5.3.4.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	60
5.3.5. SESIÓN 5: REPASO DE LA UNIDAD	60
5.3.5.1. Descripción de la actividad	60
5.3.5.2. Organización pedagógica	61
5.3.5.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	62
5.3.6. SESIÓN 6: EXAMEN FINAL ESCRITO	62

5.3.6.1. Descripción de la actividad	62
5.3.6.2. Organización pedagógica	63
5.3.6.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	63
5.3.7. SESIÓN 7: EXCURSIÓN	63
5.3.7.1. Descripción de la actividad	63
5.3.7.2. Organización pedagógica	64
5.3.7.3. Descripción de la secuencia formativa planteada	64
Ondorioak eta hausnarketa irekiak	
Erreferentziak	
Eranskinak	

SARRERA

Urteetan zehar burutu diren ikerketa asko eta zehatzei esker, hizkuntzak nola ikasten diren inguruan asko dakigu. Haurrak garenean, familia testuinguruan erabiltzen diren hizkuntzak modu azkar batean ikasten ditugu, ia ohartu eta esfortzurik egin gabe. Ez dizkigute “irakasten”, “eskuratzen” ditugu. Haurrak oso trebeak dira hizkuntzak “eskuratzen”, ama hizkuntzak eskuratzen, alajaina. Hori dela eta, beharbada, jende askok pentsatzen du zenbat eta lehenago hizkuntza bat ikasten hasi, hobe.

Gazte eta helduek beste hizkuntzak eskola edota akademietan “ikastera” ohituta daude, baina ez dituzte modu natural batean “eskuratzen” ama hizkuntza ikasi zuten moduan. Hizkuntzak modu eraginkor batean ikasten dira egoera errealetan erabili ahal ditugunean.

Nahiz eta desberdintasunak egon nola ematen den garunaren garapena haurra hazi eta heldua bihurtzen den bitartean, hizkuntza berriak ikasteko gaitasunaren gakoa, hauek ikasteko ditugun aukeretan datza.

Haurrak hizkuntzak ikasteko oso trebeak izatearen arrazoietakoa bat, hizkuntza ikasten den etxeko testuinguruaren “naturaltasuna” da. Hizkuntzak ikasteko klaseak, ordea, zeinetan ikasleek egiturak eta soinuak praktikatu, eta arau gramatikalak aplikatu behar dituzten, ez dira batere espontaneoak eta ez dute testuinguru naturala eskaintzen.

Askok uste dute hizkuntza klaseak ikasleen oinarriak ezartzeko balio behar dutela, baina klase gutxietan edukitzen da beharrezko denbora etapa hori gainditu eta hurrengora pasatzeko, zeinetan ikasleek hizkuntza bat osatzen duten osagai eta atal desberdinak ezagutzeaz gain, hauek elkartzeko gai izan behar diren, hauekin mezu erreal eta baliogarriak osatzea.

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratuak (EHGII hemendik aurrera) hizkuntzen garapenerako testuinguru natural bat eskaini diezaieke ikasleei, hauen aurrezagutzetan oinarrituz sortzen dena. Erabilera espontaneo eta natural baten aurrean, ikasleak motibatuago sentitzen dira hizkuntza desberdinen ikaskuntzarako. EHGIIak eskaintzen duen naturaltasuna, faktore

gako bat da, alde batetik, ikasgaien edukiak barneratzeko, eta bestetik, ikasgai hauetan irakasten den hizkuntzaren ikaskuntza emateko.

Zoritxarrez, ikasleen gehiengoa bere ikasketak bukatzerakoan, ez dira gai urteetan zehar ikasten egon diren hizkuntzak egoki erabiltzeko.

Gramatika praktikatu, hiztegia ikasi, bakarrizketak eta elkarrizketak entseatu eta idazlanak idatzi dituzten hizkuntza klaseak jaso dituzten ikasle askorentzako, klase hauek errazak, atseginak baita erabilgarriak suertatu izan zaie. Beste askorentzako, ordea, ez da horrela izan. Gutxiengo batek eskuratzen du ikastetxeko hizkuntza klaseetan oinarri erabilgarri bat ikasitako hizkuntza egoki erabiltzeko. Gutxiengo batek bakarrik ikasitako hizkuntzarekin komunikatzeko gai da.

Gehiengoarentzat, ordea, hizkuntza klaseetan eskeinitako denbora eta ahaleginak lortu izandako emaitz praktikoko eskaxetan oinarrituz, etsigarriak izan dira. Pertsona hauek, ikasketak bukatzerakoan, ez dira gai ikasitako hizkuntzak modu aktibo eta eraginkor batean erabiltzeko. Ez dira gai egunerokotasunean ematen diren egoeratan komunikatzeko.

EHGIIak hizkuntzen praktika errazten du eta beste hizkuntzen erabilerarako jarrera onuragarriak sortzea lortzen du. Zenbat eta lehenago hasi komunikatzen eta hizkuntza erabiltzen beste eduki curricular batzuk ikasteko, orduan eta lehenago antzemango dira helburu bikoitz hauen lorpena txalogarria dela.

Lan honen helburua, EHGII eskola eleanitzetan ezartzearen sustatzea da, adibidez, Nafarroan. Honekin, Atzerriko Hizkuntzaren (Ingelesaren) ikaskuntza egoki eta erabilgarri bat bermatzea nahi da. Horretarako, hurrengo orrialdeetan EHGIIaren marko teorikoa finkatuko da, non metodologiaren nondik norakoak eta Unitate Didaktikoak finkatzeko kontutan hartu beharrekoak azaltzen diren. Bukatzeko, azaldutako marko teorikoan oinarrituz, EHGIIaren Unitate Didaktiko baten eredua zehazten da.

1. EDUKI ETA HIZKUNTZA GEHIGARRIEN IKASKUNTZA INTEGRATUARI GERTURATZEN

1.1 Zer da Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratua?

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratua (hemendik aurrera, EHGII), hezkuntza ikuspegi bat da. Bertan irakasgai bat edo gehiago *hizkuntza gehigarri* batean irakasten dira. Normalean, ikaslearen atzerriko hizkuntzan irakasten da, baina bigarren hizkuntza edota komunitate baten hizkuntzan ere eman daiteke. Horrela, irakasgaiaren edukien ikaskuntza eta *hizkuntza gehigarria* barneratzen dira. Hau dela eta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, bai irakasgaiaren edukiei bai hizkuntzari ematen zaie garrantzia. Bata bestearekin eskutik helduta doaz, nahiz eta momentu jakin batean bata edo bestea indar gehiago hartu.

EHGII ez da hizkuntzak irakasteko modu berri bat, ezta irakasgaien hezkuntza modu berri bat ere, baizik eta bi hauen arteko elkarketa berritzailea. EHGII hezkuntza praktiken aldaketa batekin estuki erlazionatuta dago. Praktika hauetako batzuk, hala nola, hezkuntza elebiduna eta murgilketa, herrialde eta testuinguru zehatzetan azken hamarkadetako eskola askotako funtzionamenduan egon dira.

Beste eredu batzuk ordea, esaterako Ingelera Hizkuntza Gehigarri bezala (IHG), oinarrizko teoria eta praktika batzuk partekatu dezakete baina ez dira EHGIIren sinonimoa. Izan ere funtsezko desberdintasun batzuk daude:

EHGII edukietatik abiatzen da. Horrela hizkuntza ikaskuntzaren esperientziara zabaltzen da. Honek gainontzeko beste hezkuntza ikuspegietatik ezberdintzen duen ezaugarria da. Nahiz eta EHGII malgua izan eta testuinguru desberdinetara egokitu daiteken, ikuspegia justifikagarria eta jasagarria izan behar du, eta bere oinarri teorikoa praktikan zorrotza eta gardena.

Gainera EHGII terminoa inklusiboa da. Izan ere, bere printzipioak ezarri dituzten testuinguru ezberdinetako ikastetxeek praktika onen oinarrian kokatzen dute EAHII. Izaera ezberdineko ikasleekin era askotara aplikatu daitekeen eredu hartzen du bere baitan. EHGIIIn praktika onak garatzeko, ikaslearentzat hezkuntza esperientzia integrala suposatuko duten metodoak erabili behar dira.

EHGIIren hezkuntza arrakasta, edukietan eta ikasgeletan hizkuntzen ikaskuntzarekin lortu diren emaitzetan datza. Egun, hezkuntzako diziplina arteko ikerketa azaleratzen ari dela, EHGIIk, ideiak osatzen dituen ikaskuntza bideak eskaintzen ditu. Honengatik, EAHII bultzada hartzen eta herrialde guztietatik hezkuntza ikuspegi bat bezala hedatzen ari da.

1.1.1. EHGIIren definizioa

Eduki eta Hizkuntza Gehigarrien Ikaskuntza Integratua terminoa (erdaraz, *Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas Extranjeras*, AICLE; eta ingeleraz, *Content and Language Integrated Learning*, CLIL) 1994. urtean hartu zen (Marsh, Maljers eta Hartiala, 2001) Europar testuinguruan praktika onak deskribatu eta diseinatzeko.

Eskola askok munduko testuinguru desberdinetan ikaskuntza aberasteko haien modu propioak bilatzen egon dira, batzuetan urte askotan zehar. Hau dela eta EHGII bilatu zen eta ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak *hizkuntza gehigarri* batean eskaintzen zituzten testuinguru ezberdineko ikastetxe batzuetan ezarri zen.

Esan bezala, EHGII hezkuntza ikuspegi bat da eta hizkuntza laguntza metodologiko batzuk erabiltzen ditu. Metodologia hauek bi helburu lortzeko zuzenduak daude: alde batetik hizkuntza eta beste alde batetik gai bateko edukiak.

“Helburu bikoitz hau lortzeko, irakaskuntza metodo berezi baten garapena behar da, non hizkuntza ez den irakasgaia, atzerriko hizkuntzarekin eta atzerriko hizkuntzaren bitartez irakasten den” (Eurydice, 2006:8).

Eredu berri honek, ikasgela batean hizkuntzen ikaskuntza lortzeko oso zaila izan daitekeen hezkuntza esperientzia berri bati ateak irekitzen dizkio. EHGII ez da hizkuntzen ikaskuntza, ezta gizabanakoaren ikaskuntza ere, baizik eta bion arteko nahastea eta konbergentzia prozesuekin erlazionatuta dagoen ikuspegia. Konbergentziak alde aurretik zatituak izan daitezkeen elementuen

fusioa inplikatzen du, curriculumaren materiak esaterako. Hemen, EHGIIak bide berriak irekitzen ditu.

1.2. Zergatik da EHGII gaur egungo hezkuntzarako garrantzitsua?

Gaur egungo hezkuntza sistemetan erronka handia dago mundu mailan gertatzen ari diren aldaketetara, teknologia konbergenteetara eta murgilduta gauden ezagutza arora egokitze gaitasunen artean. Hauek hezkuntza beraren barruan hizkuntza ezberdinen ikaskuntza eta irakaskuntzarako erronkak bilakatzen dira.

Guzti hau mundu mailan Ingelesaren ikaskuntzarako gertatzen ari da, baita eskualde eta gutxiengo hizkuntzen ikaskuntzarako ere, munduko toki desberdinetan. Aurretik aipatu dudan moduan, EHGII ez da bakarrik Ingelesa munduko hizkuntza bezala sustatzeko. Baina aipatu behar da hizkuntza hau beste nazioen ohitura sozio-ekonomiko, politiko eta kulturaletan txertatuta dagoela.

Adibidez, munduko toki batzuetan, esaterako Australian, LOTE (Languages Other Than English/ Ingelesaz Aparteko Beste Hizkuntzak) sustatzen dute. EHGIIk Asiako, Europako, edota belaunaldiz belaunaldi pasatu diren hizkuntzak hartzen ditu bere baitan.

Mugakide diren eremuetan, esaterako Frantzia eta Estatu Espainolean, EHGII bi hizkuntzen elkartrukean oinarritu lirateke. Hau oso ideia eraginkorra den arren, aurrera eraman daitekeen arren eta edozein hizkuntzarekin ezarri daitekeen arren, EHGIIak gehienetan ingelera eskaintzen jarraituko du ingelerari mundu mailan eman zaion garrantzia dela eta.

Teknologia berriek eta bizimodu aldaketek egungo belaunaldien pentsatzeko moduan eragina izan dute. Belaunaldi hauek gero eta lehenago hasten dira teknologia berriak erabiltzen, adibidez ordenagailu, internet, mugikorak, etab. Honen ondorioz, ikasleek erantzuten duen irakasle baten beharra izaten dute. Aldiz, belaunaldi helduentzat teknologia hauetara egokitzea zailago suertatu daiteke, pentsaera desberdinekin hezituak izan direlako.

Hau dela eta, gaur egungo hezkuntza sistema “ikasi erabiltzen duzun moduan eta erabili ikasten duzun moduan” irakasten saiatzen da eta ez “ikasi orain gero

erabiltzeko". Hala ere, hezkuntzaren zati handi bat oraindik ere bigarren esapidean blokeatuta dago. Honek ez du esan nahi zenbait kasutan erabilgarria ez denik. Baina hezkuntza praktikak partaideen (ikasle, irakasle eta komunitate) eskakizun kulturaletara egokitzearen beharra du beti. Integrazioa kontzeptu gako batean bihurtu da aro modernoan, helburuaren berehalakotasunarekin batera. Biek, EHGII hezkuntza ikuspegiaren barne daude eta gero eta gehiago diren gazteen esperientzia islatzen dute.

Aldaketa sozio-ekonomiko eta kulturala aurretik gertatzen zena baino azkarrago doa. Izan ere, aurretik aipatu den bezala, besteak beste teknologia berriek eragin handia dute. Hau dela eta, hezkuntza sistemek iraganen egiten zutena baino azkarrago egokitu behar dira. Hezkuntza sistema pixkanaka-pixkanaka egokitu behar da.

Aditu batzuen ustez, ikasgelen hezkuntza praktiken aldaketa lortzeko 15-20 urte igaro beharko lirateke. Hau aldaketa teknologikoen testuinguruan eta ondorengo bizitzan kokatzen badugu, etengabeko aldaketan dagoen munduan oso denbora epe luzea dela ikusten dugu. 40 urte igaro ziren irratia 50 milioi entzule izatera arte, 20 urte igaro ziren fax-a 10 milioi pertsonen edukitzera arte, 10 urte baino gutxiago mugikorra 10 milioi pertsonen edukitzera arte eta gutxi gora behera 5 urte interneta 10 milioi pertsonen edukitzera arte.

Teknologia berrien azkartzeak pertsona askoren bizimoduan eta hauen xedetan eragin handia ekartzen ari da. Globalizazioa ez da intzidentala gure gaur egungo bizitzarekiko, gure bizitzako aldaketa bat da. Hau dela eta, hezkuntzan hizkuntzen ikaskuntza eta ikaskuntza azkartzeko metodoak beharrezkoak dira komunitate askotan.

1.3. Zergatik da EHGII irakaskuntza lanbidean garrantzitsua?

Aurretik aipatu dugun bezala, EHGIIak eskaintzen dituen abantailen artean, ikasleek irakasgai berezietako terminologiara iristeko gaitasuna ematea edota etorkizuneko ikasketa edo lan bizitzarako prestatzea dira. Baina hori alde

batera utzita, hurrengo lerroek ikaslearen garapen kognitiboan zentratuak egongo dira.

Hizkuntza desberdinetan pentsatzeko gaitasuna edukien ikaskuntzan eragin positiboa izan dezake, gutxi bada ere. Hau lortzeko, tutoreak gai zehatzen metodoak egokitu beharko ditu hizkuntza gehigarria hobeto lantzeko, modu erosoagoan. Honek ez du esan nahi irakaslea hizkuntza irakaslearen papera hartu behar duenik. Modu honetan, tutoreak ikasleentzat eta irakasleentzat onuragarriak eta eraginkorrak diren metodologiaren erabilera alternatiboak irekiko dizkie.

Ikuspegi honetatik, EHGII ez du bakarrik konpetentzia linguistikoa sustatzen, malgutasun kognitiboa estimulatzen ere balio du. Pentsaera horizonte desberdinek eta EHGIIren metodoak sustatzen duten hezkuntza praktika konstruktibista eraginkorrak, kontzeptualizazioan ere eragina izan dezake (hau da, gure pentsatzeko moduan). Horrela, edukien ulermena aberasten da eta mapa kontzeptualen baliabideak zabaltzen dira. Hau, kontzeptu desberdinen asoziazio hobeko bat baimentzen du eta orokorrean, ikaslea ikaskuntza maila sofistikatu batera aurreratzen laguntzen du.

Motibazioa ere arazo bat da. Ikasle bat hizkuntza gehigarri baten bitartez ikaskuntzan nahita parte hartzen badu, orokorrean irakasgaiarekiko motibazioa hobetu daiteke. Arrazoi ugari daude zeinengatik hau testuinguru zehatz batean gerta daitekeen, baina argi dagoena da onurak dituela, bai kognitiboak bai motibaziokoak. Hauek edukien ikaskuntzan lagundu dezakete baina baita tutorearen posizioan eta parte hartzean ere.

Ikaskuntza arrakastaren gako bezala benetakotasuna eta prebalentziaren garrantzia nabarmendu dut. Hizkuntza irakasleentzat, ikasgelan benetakotasun maila egokiak lortzea erronka bat da. Adibidez, nahiz eta "benetako" idazkiak erabili, eta irakasgaia garrantzi handikoa izan ikaslearen bizirako, ikasgaiaren idazki hauen arrazoi gain hartzailea hizkuntzen ikaskuntza da. Azken hau ikaslearen egokitasun gramatikala ebaluatzen duten frogen bitartez neurtzen denean, irakasgaiaren benetako helburua hizkuntza bera izango da. Ikaskuntza mota hau EHGII moduekin batera ematen bada, ikaslea bi esperientzia elkarren

arteko osagarri hartzen ditu: bata hizkuntzen ikaskuntza, eta bestea, hizkuntzaren eskuraketa.

Gaur egun, hobeto ulertzen da hizkuntzen “eskuraketa” eta “ikaskuntza” kontzeptuen artean dagoen desberdintasuna. Haurren hizkuntzen ikaskuntza goiztiarraren aldeko iritziak, hurrek testuinguru normal batean beste hizkuntza bat ikastera ongi egokitzen direla dio. Modu honetan beste ikaskuntza batzuk integratzen dituztelako. Gure hezkuntza sisteman, hurrei eta helduei, testuliburu baten bitartez irakasten zaie hizkuntza (nahiz eta teknologi digitala gero eta erabiliagoa da hau osatzeko). Askotan hizkuntza baten ikaskuntzari eskaintzen zaion denbora curriculumeko beste irakasgai batzuen presioa dela eta mugatua dago. Baina hizkuntzen ikaskuntza arrakastatsua gerta dadin, hurrek argibideak jasotzeko aukera duten bitartean, eskuratu nahi den hizkuntzaren ahalik eta egunerokotasuneko benetako esperientziak bizitzen dituztenean lortzen da.

Adibidez, geografiako gai bat komunikazio hizkuntzaren bitartez ikastea modu kognitibo eta bateragarrian, benetakotasun handiko sentsazio alderagarri bat lortzea lagundu dezake. Hizkuntza gehigarri baten edukia egoki ikastearen ideia, guraso eta haurren intuizioaren kontrakoa izan daiteke. Baina ulermen handiago bat suposatuko du hizkuntzaren eskuratze intzidentala ematen bada eta ez hizkuntzaren ikaskuntza intentzionatua.

Hizkuntza saioak funtsezkoak dira ikasleak hizkuntzaren oinarriak (gramatika, hiztegia, eta abar) uler eta eskuratu ditzan. Baina irakasleak gutxitan denbora nahikoa du ikaskuntza prozesuaren funtsezko atal hauetatik baino haratago joateko. Ikasleek denbora behar dute oinarri hauekin gauzak eraikitzeko, teoriarik paper batean idatzia ikusi dutena praktikan jartzeko.

EHGIIak edozein adineko ikasleentzat beste ikaskuntza modu batean oinarritzen den lengoaiaren garapenerako, egoera naturala eskaini ditzake. Hizkuntzaren erabilera natural hau, hizkuntzen ikaskuntzarako ikaslearen motibazioa handitu dezake:

“Hau oinarrizko elementu guztiek duten naturaltasuna da, EHGIIIn ikasitako irakasgai eta hizkuntza guztien arrakasta bermatzen duelarik” (Marsh, 2000:5).

Hizkuntza gehigarriaren ikaskuntza bermatzeko metodologian aro berri bat heldu da, munduko aldaketa handienak zuzenean islatzen dituena. Dagokion hezkuntza filosofiaren funtsezko aldaketan, EHGIIak hizkuntza irakaskuntzaren praktikarako aukera eta mehatxu bat aurkezten du. Murgiltze prozesuan bezala, hizkuntzen irakaskuntza EHGIIaren gehiengo ereduaren funtsezko atala da. Baina guzti hau *hizkuntza gehigarriaren* irakaskuntzarekin koherentea izateko, askotan egokitzapen curricular eta metodologiko baten beharra azaltzen da. Hizkuntzaren azalpen gehigarria, erabilitako metodoak, eta hizkuntzarekiko ikasleek aurkeztutako jarrerek, hizkuntzen ikaskuntza hobetu dezakete. Honek, hizkuntza irakasleek beraien lanbidea birsortzeko aukera eskaintzen du.

Honaino, EHGIIaren sarreran faktore ugari lagundu zutela ikusi dugu. Hizkuntza eta funtsezko edukiak dakarrenez, ez da soilik hizkuntza ikaskuntza modu bat, edukietan oinarritutako hezkuntza ikuspegi batean datza. Hau EHGII azken hamarkadan hezkuntza fenomeno bilakatzearen oinarrizko arrazoia da. Izan ere, behin eta berriz errepikatzen denez, edukiak eta hizkuntzen ikaskuntza osagarri bilakatzen ditu. Gainera, aurreko hau norbanakoaren menpean dagoen zerbait da.

EHGII ez da soilik hizkuntza gehigarri baten hezkuntza, baizik eta elkarlotutako pedagogietan oinarritutako *hizkuntza gehigarri* baten bitartez eta metodologia testuinguratuaren erabileraren bidez ematen den hezkuntza.

2. CURRICULUMAREN ALDAKETAK EHGIIIn

Jada ikusi dugu EAHII nola eta zergatik azaldu den, baita honen ezarpenaren aldeko arrazoi ezberdinak. Testuinguru desberdinetan garatu diren eredu kurrikular ugari daude. Hauek, EHGIIaren helburu nagusienak lortzeko, EHGII ezartzeko eta testuinguruaren aldagaiei erantzuteko erabiliak izan dira.

Aipatzekoa da, EHGII ereduetatik hartu eta garatu beharreko ideiak dauden bitartean, batzuk ez dutela curriculum guztientzako balio. Izan ere, ez dago EHGII eredu bakarra, oso eredu anitza da alde horretatik. EHGIIko eredu asko

daude, eredia ezarri nahi den zergatiaren arabera, edo eredia praktikara eramateko gaitasunaren arabera.

Hala eta guztiz ere, edozein eredu aurrera eraman aurretik, eskolak kontutan hartu beharreko bi gako daude: alde batetik, operaketa faktoreak daude (hala nola, irakaslearen erabilgarritasuna eta ikasleen ebaluaketa); eta bestetik EHGII programaren eskala.

2.1. Faktore eragileak

Hauek dira EHGIIIn aurkitzen ditugun faktore eragileetako batzuk:

- *Irakasleen prestasuna* berebiziko garrantzia dauka. Izan ere eredu baten diseinuaren abiapuntua hori izan ohi da. Irakasleak elkarrekin lan egiten dutenez, planifikazioan eta ereduaren ezarpenean eragina dauka.
- EHGII ereduaren bitartez irakatsi nahi den hizkuntza kontuan hartzen bada, irakasleak eta ikasleak duten hizkuntza maila, irakasleak gelan izango duen rola eta gelako hasierako hitz jariaketa eta hizkuntzarekiko erraztasuna zehaztuko dute.
- Helburuen ezarpenean *denbora* funtsezkoa da. EHGII eredia ikasketa planaren barruan denbora tarte jakin batean programatzerakoan, EHGII eredu bat edo beste ezartzeko aukeraketan eragina du.
- Edukiak eta hizkuntza integratuak dauden moduan, ereduaren barruan hauek nola garatuko eta aurrera eramango diren erabakian eragina dute. Hiru modutan garatu daiteke eredia edukiak eta hizkuntza integratua kontuan hartuta:
 - EHGII ikasturtea hasi aurretiko hizkuntza prestakuntzaren bidez.
 - EHGII ikasturtean hizkuntza integratuen ikaskuntzaren bidez.
 - EHGII ikasturtera aldiberekoa, paraleloa den hizkuntzen ikaskuntzaren bidez ematen da.
- EHGII eredia eskolaz kanpoko edo hezkuntza curriculumaren kanpoko esparruarekin lotzen denez, zereginetan oinarritutako komunikazioa

baimentzen du. Hau dela eta, beste ikastetxeko ikasleekin, eskolaz kanpoko pertsonekin, etab. landu daiteke. Modu honetan, ereduaren benetako inpaktua ikusiko litzateke.

- Azkenik, formakuntzako ebaluazioa eta ebaluazio gehigarrien prozesuei lotutako galderak daude: eduki bakarrean zentratutakoak, edukian eta hizkuntzan edota hizkuntza bakarrean zentratutakoak. Hauek, ereduaren diseinuan eragin zuzena dute. Izan ere, ebaluazioak paper garrantzitsua jokatzeko du hezkuntzako edozein arlotan.

2.2. Eskala

2.2.1. Komunikazio hizkuntzaren bitarteko jarraibide estentsiboa

Puntu hau garatu aurretik, komunikazio hizkuntza terminoa zer den jakitea komenigarria da. Komunikazio hizkuntza, ama hizkuntza ezberdina duten ikasleen artean zehazten den hizkuntza da denok elkarri ulertu ahal izateko. Hizkuntza bakarra izaten da eta denok hizkuntza hori erabili behar dute komunikazioa eman dadin.

Eredu honetan, komunikazio hizkuntzak gaiak sartu, laburbildu eta berrikusteko erabiltzen da. Beraz, ikuspegi hirukoitza dago kasu honetan: edukiak, hizkuntza eta kognizioa.

Hizkuntzen ikaskuntza eta honen ulermena handitzen laguntzen duten metodoak erabiltzen dira edukien irakaskuntzan. Laguntza hau, edukiekin batera, hiztegi eta kontzeptu berriak, erabilera gramatikala, etab. sartzeko erabiltzen da. Honako hau tutoreak berak bakarrik egin dezake hizkuntza irakasle baten laguntzarekin (batez ere egitura linguistiko zehatz batzuk aurretik ikasi direnean). Hizkuntzaren funtsezko edukiak hizkuntza irakasle batek ere irakats ditzake, zeinak edukien ikaskuntzaren ardura hartzen duen.

Komunikazio hizkuntzaren bitarteko jarraibide estentsiboak, curriculumak edukien ikaskuntzara zuzendutako helburuak izatea bezain garrantzitsua, hizkuntza gaitasuna lantzeko helburuak lantzea dela uste du. Kasu batzuetan, ikasketa planaren %50a baino gehiago modu honetan irakatsia izan daiteke.

Eskolaren testuinguruaren arabera, EHGII bitartez irakasten diren edukiak irakasgai multzo batetik atera daitezke. Testuinguruan oinarritutako arrazoiengatik (esate baterako, eskola barruko mugimendu internazionala zeina ikastetxearen lehenengo hizkuntzan zailtasunak edo gaitasun gutxi dituzten ikasleak barneratu ditzakeen), ikasle guztientzako egoera berdintasun bat lortzeko helburuarekin EHGII hizkuntza oso zabalki erabiltzen eta irakasten ohi da.

2.2.2. Komunikazio hizkuntzaren bitarteko instrukzio partziala

Komunikazio hizkuntzaren bitartez instrukzio partziala inplikatzeko duten ereduak, eduki espezifikoa irakasgai bat edo gehiagotik sortzen dira. Hauek mugatutako ezartze aldietan ematen dira eta EHGII bitartez irakasten dira (askotan curriculumaren ehuneko bosta baino gutxiago EHGII bitartez irakatsia izango da).

Kasu honetan, proiektuetan oinarritutako ikuspegia askotan erabilia da malgutasun gehiago ematen dutelako. Orduan, irakasteko ardura, soilik edukiarekin edo hizkuntza irakaslearekin eman daiteke ala biek batera ere. EHGII hizkuntza bitarteko irakaskuntza ereduak luzeak diren bezalaxe, berriro ere eduki, hizkuntza eta kognizioaren ikuspegi hirukoitza dago.

Askotan komunikazio hizkuntzaren bidezko instrukzio partziala elebidun instrukzioekin nahastuta adierazten da. Hau dela eta, hizkuntzen arteko kode aldaketa gertatzen da. Hemen, ikasgaiak EHGII hizkuntza eta lehenengo hizkuntzaren bidez, hizkuntzaren erabilera sistematikoa dakartzate. Adibidez, batzuetan hizkuntza bat gai nagusiak zehazteko eta adierazteko erabili daiteke, eta beste hizkuntza gainontzeko irakaskuntzaren funtzioak betetzeko.

Alternatiba bezala, bi hizkuntza desberdinak jarduera mota espezifikoa desberdinetan erabili daitezke. Kode aldaketa honi ingeleraz “*traslanguaging*” bezala ezagutzen zaio eta ikasgelako martxa elebitasun dinamiko batera eramaten du. Hizkuntzen arteko etengailu sistematikoa, eduki, hizkuntza eta kognizioaren garapen planifikatu batean oinarritzen da.

Euskaraz hizkuntzaz aldatzea deitu ahalko genioke, baina kontzeptua aldaketa horretaz haratago doa oraindik. Arrazoi espezifikoak direla eta, hizkuntza batetik beste hizkuntza baterako aldaketa sistematikoa da. Aldaketa hau oso esanguratsua da adibidez Nafarroako ikastetxeetan. Non batez ere ama hizkuntza erdara duten haurrek baina D ereduan matrikulatuak dauden adin gutxiko ikasleek erdaraz ari diren eta bat-batean euskarazko hitzak sartzen dituzten edo euskaraz ari diren eta bat-batean erdarazko hitzak sartzen dituzten.

Beraz, hizkuntza aldaketa hau gelara eramaterakoan, adibidez, ikasle batzuk lehenengo hizkuntzan dagoen testuliburu bat erabil dezakete konfiantza eta ulermena sustatzeko helburuarekin. Bitartean beste ikasle batzuk arazo baten aurrean irakasleari argibideak eskatu ahal dizkiete. Baina EHGII irakasleak ikasleek egin dizkio ten galderak komunikazio hizkuntzaren bitartez erantzungo ditu, Modu honetan ikasleen hizkuntzaren garapenean lagunduko ditu.

Irakasle batzuen buruhauste bat izan da hizkuntza gehigarri baten bitarteko ikaskuntzak. Izan ere, ikasleek lehenengo hizkuntzaren oinarriko kontzeptuak ez ulertzea eragin dezakete. Arazo hau gainditzeko hizkuntza aldaketa erabili daiteke, esate baterako, lehenengo hizkuntzaren materialak erabiliz (gure kasuan euskaraz hiztegia, kontzeptuen egiaztatze zerrenda eta abar eskuratzea) EHGIIaren komunikazio hizkuntzaren irakaskuntzan laguntzeko.

2.3. Lehen hezkuntzako eredu curricularra

Eredu hau aurrera eramateko orduan, testuinguruko aldagai batzuetatik garatzen da. Hurrengo taulan *testuinguru*, *eduki*, *hizkuntza* (komunikazioa), *ikaskuntza* (kognizioa) eta *kultura* izenburupetan adierazten dira irakaskuntzaren aldagai horiek:

1. Taula: EHGII ezartzeko irakaskuntzaren aldagaiak

Testuingurua	<ol style="list-style-type: none"> 1. Globalizaziorako prestatzea. Adibidez, eskolaren curriculum osoaren garapena beste hizkuntzen bitartez. 2. Ziurtapen internazionalerako sarbidea. Adibidez, azterketa sistema batetik kanpo, Batxilergo Internazionallean bezalaxe.
--------------	---

	3. Eskolaren perfilak hobetzen. Adibidez, EHGII eskainiz hezkuntza eleanitzari buruzko mezu sendoak ematen dira.
Edukia	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasketarako ikuspegi anitzak. Adibidez, historia moduluak zeinetan benetako testuak beste hizkuntzetan ematen diren. 2. Etorkizuneko ikasketetarako prestatzea. Adibidez, lexiko internazionala sartu eta IKTetan zentratzen diren moduluak. 3. Lan bizirako trebetasunak. Adibidez, ikasketa akademikoen teknikaz arduratzen diren ikastaroak, zeinak beste ikasketetara ikasleak ekipatzen dituzten. 4. Irakasgaiaren ezaguera espezifikoa beste hizkuntza batean eskuratuz.
Hizkuntza	<ol style="list-style-type: none"> 1. Helburu den hizkuntzaren kompetentzia globala hobetzea. Adibidez, EHGII hizkuntzarako kalitatezko esposaketa luzearen bidez. 2. Ahozko komunikazioaren trebetasuna garatzea. Adibidez, benetako komunikazio bideen aukera zabal baten eskaintzaren bitartez. 3. Lehenengo EHGII hizkuntzen ezagutza sakontzea. Adibidez, curriculumeko %50 beste hizkuntzetan eskaintzen dituzten eskolek, beraien ikasleentzako ezaguera sakon eta oinarri linguistikoa garatzeko helburua dutena. 4. Hizkuntza ikasle eta komunikatzaile gisa norbanako konfiantzaren garapena. Adibidez, hizkuntza egoera praktikoak. 5. Beste hizkuntza baten ikaskuntza eta erabilera sartzea. Adibidez, ekintza gidatuak diren irakaspenak hizkuntzen ikaskuntza helburuekin nahasten dira.

Ikaskuntza	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza ikaskuntza saio tradizionalen huts egitea sentitu dutenentzat, ikaslearen motibazioa handitzeko formakuntza ikastaroak erabiltzea. Hauen helburua EHGIIko hizkuntza erabiliz norbanako segurtasuna eraikitzea da. 2. Ikasgela praktiketarako metodo eta ikuspegi aniztasuna. Adibidez, entzumen arazoak dituzten ikasleak integratzen dituzten ikastaroak, non keinuen hizkuntza EHGII hizkuntzan eskaintzen den. 3. Norbanako ikaskuntzarako estrategiak garatzea.
Kultura	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura arteko ezagutza eraikitzea, elkar ulertzea eta hauekiko tolerantzia bermatzea. Adibidez, aurreiritzi etnikoen jatorriari buruzko psikologia modulua. 2. Kultura arteko komunikazio trebetasunen garapena. Adibidez, ikasleen arteko elkarlana bultzatzea nazioen arteko proiektuan. 3. Aldameneko herrialde, eskualde zehatz edota gutxiengo taldeetatik ikastea. Adibidez, ikasleen "elkar trukeak" mugakide diren herrialdeen artean. Ikarle eta irakasleak sartzen dira, baliabideak eta curriculumeko helburuak partekatzeko. 4. Testuinguru kultural zabalago bati sarbidea eman. Adibidez, ikerketa konparatiboak, bideo helbideak edota interneteko komunikazio baliabideak sartzen dituztenak.

(Marsh, Maljers eta Hartiala, 2001:16-tik egokitua)

2.4. LEHEN HEZKUNTZAKO EREDUAK

EAHII hizkuntzaren aurre ikaskuntza modu bat bezala erabili daiteke maila honetan. Zereginetan oinarritutako ikaskuntza batean eredu ezberdin komunak daude. Hauek komunikazio hizkuntzaren erabilera erraza suposatzen dute eduki osoak dituzten gaien lanketaren bidez.

Komunikazio hizkuntza ikasleen biziengandik urruntzen denean eta atzerriko hizkuntzaren estatusa hartzen duenean, oso garrantzitsua da ikasleen motibazioa handitzea, ikaslearen hizkuntzaren ikaskuntza bultzatu eta bermatu eta ikasleak hizkuntzarekiko duen konfiantza handitzea. Bestela, porrotaren arriskua izango dugu.

Beste kasu batzuetan, beste herrialde batzuetatik etorritako haurrei testuinguruko hizkuntza nagusirantz jotzeko mugak dituztenean, EHGII “nibelatzaile” bat bezala erabili daiteke. EHGII hizkuntza eta edukiak ikasle guztientzat eskuragarri izaten dira, bere ama hizkuntza edozein delarik.

Honako hau Estatu Batuetako egoera izan da urte askotan zehar, eta Europako testuinguruan geroz eta gehiago agertzen ari da. Izan ere, biztanleriaren demografia aniztasun kultural eta linguistiko garrantzitsu bat izatera pasatu den.

Nafarroan ere antzeko zerbait gertatzen ari dela esan dezakegu. Aniztasun kulturala handitu den heinean aniztasun linguistikoa handitu da ere. Eta askotan zail egiten zaie ikasleei euskara ikastea, askotan erdara ikastearekin batera. Baina hau gutxi izango balitz gainera, normalean ingelera ikasi behar izaten dute. Honek asko zailtzen du edozein hizkuntzaren eskuratzeak.

Hizkuntzen ikaskuntzan adinari dagokion faktorearen inguruan ez dago adostasunik. Hala ere, hizkuntzen ikaskuntza goiztiarraren garrantziaren interesa gero eta handiagoa da, eta horrekin, EHGII txertatzearen interesa Lehen Hezkuntzan ere. “Ahalik eta lehenbailehen hobe”, eta Hizkuntza Gehigarriaren sarrera “ahalik eta naturalagoa” defendatzen duten ikuspegiak, “ikaskuntza intzidentalaren” egitura jarraituz, EHGIIren sarrera adin goiztiar batean defendatzen dute, dakartzaten onurak azpimarratuz.

Gorago aipatu den bezala, EHGII ereduak bere baitan eredu gehiago hartzen dituela esan da. Beraz, jarraian, lehen hezkuntzan ezarri daitezkeen eredu ezberdinak azalduko dira:

2.4.1. A1 ereduak: Norbanako konfiantzaren eraikitzea eta kontzeptu gakoaren sarrera

Ikaskuntza, irakasleak EHGIIrako diseinatutako materialak ikaskuntza esanguratsuan oinarritzen dira. Eredu honetan, ordu batzuk, beste herrialde bateko ikasleekin komunikatzeko eskaintzen dira.

- Argibideak eta gaiaren nondik norakoak ama hizkuntzan irakatsiko dira. Baina gaiaren kontzeptu gakoak EHGII ereduko hizkuntzan eskainiko dira beti ere laguntza linguistiko batekin.
- Komunikazioa eta emaitzak EHGII hizkuntzaren bitartez aurrera eramaten dira.

Puntu hauek ereduaren oinarrian kokatzen dira.

*A1 eredu*a EHGII hizkuntzaren menderatze mugatua duen tutorearekin aurrera eraman daiteke, hizkuntza irakasle baten laguntzarik gabe. Eredu hau hizkuntza irakasle eta irakasle eleanitzen prestasun falta duten herrialdeetan oso erabilgarria da. Diseinatutako materialak erabiliz, tutoreak EHGIIaren aurkezpen murriz batean murgilduko da nahiz eta bere mugak izan.

Adibide hau, hizkuntzaren hastapenetan dabilzan ikasleentzat erabilgarria da komunikazio hizkuntzaren mundu zabalean sartzerakoan.

Eredu honen erabilera hezkuntza testuinguru gehientzat garrantzitsua izan daiteke, baina batez ere hizkuntza eta kultura desberdinetara sarbide gutxi duten ikasleen testuinguruetan.

Finantziarioa eta baliabideak mugatuak diren testuinguruetan ere erabilgarriak izan daitezke. Izan ere, teknologia gutxi izan arren, beste eskoletako edota beste herrialdeetako ikasgelen arteko komunikaziorako erabili daiteke. Esate baterako, posta zerbitzuetatik bidalitako objektu, irudi, argazki, gutun edota bideoen bidez.

Hau gertatu da, adibidez, Ruanda eta Erresuma Batuko bi ikasgelen atean: bi eskolek batera lan egin zuten eko-proiektu batean. Frantsesa komunikazio hizkuntza izanik eta proiektuaren datu elkar trukaketa eginez gutun eta bideoen bidez.

Baina, esfortzua merezi al du? Edozein ikaslek EHGII hizkuntzarekiko esposizio motz batekin onurak lor ditzake? Ikasleek hizkuntza honen produkzioaren emaitzekin arrakasta izatea espero dezakete bere hizkuntzaren menderatzea mugatua den bitartean?

Eredu hauek aztertzerakoan, mota hauetako galderak sortarazten zaizkie hezitzaileei. Galdera hauei erantzuteko, askotan norbanako konfiantzaren

helburua ebaluatzea oso zaila dela aitortu behar da. Horretarako, ikaskuntzaren dimentsio afektiboa dugu.

2.4.2. A2 eredu: Kontzeptu gakoak eta ikaslearen autonomiaren garapena

Eredu hau aurretik aipatu dugun hizkuntza aldaketaren ikaskuntzan datza. Bertan ekintzak EHGII hizkuntzan garatzen dira baina material elebidunak erabiltzen dira. Tutore eta hizkuntza irakasleak batera lan egiten dute ereduari. Honako puntu hauek ereduaren oinarriak dira:

- Kontzeptu gakoak ama hizkuntzan eta EHGII hizkuntzan irakasten dira. Ikerketa pentsatzeko trebetasun gakoak, bizi familiar eta jarrera alderdietan oinarritutako ekintzak izan ohi dira.
- Oinarri gakoak ebaluaketa ama hizkuntzan egin ohi da eta jardueren portfolioaren ebaluaketa EHGII hizkuntzan.

A2 eredu, hizkuntza irakasle bat EHGII hizkuntzaren menperapen nahikoa duen beste tutore batekin lankidetzan egotea eskatzen du.

A2 eredu *A1 eredu* baino haratago joaten da, edukien kontzeptuen ulermena sakonduz eta kontzientzia metalinguistikoa garatuz. Gainera, metodologia berritzaileak sartzeko katalizatzaile bat bezala jardun dezake. Horrela, ebaluaketa hezitzailea garatzen da eta ikaslearen autonomia hobetu daitezke.

2.4.3. A3 eredu: EHGII hizkuntzan irakatsiko den irakasgaiaren prestakuntza

Ikasleek irakasgaiaren gai desberdinak EHGII hizkuntzan ikasiko dituzte. Eredu honetan tutorea eta hizkuntza irakasleak batera lan egiten dute curriculum jarraituz.

- EHGII hizkuntza ikaskuntzak eta edukien ikaskuntza osagarritzen du, hitz eta egituretan arreta berezia jarriz. Hauek ikasleen pentsamendu gaitasunak garatzen eta egituratzen laguntzen dute.

- Gakoen oinarrien ebaluaketa EHGII hizkuntzan egiten dira, oinarritzko kontzeptuen aldibereko ebaluaketa ama hizkuntzarekin egiten diren bitartean.

A3 *eredua*, laguntza marko batean diseinatutako helburu baten menpe dago baldin eta ikasle guztien ahalmenak sustatzen badira.

Ez da bideragarria lan egiteko ikuspegi hau erabiltzea irakasleek inguruko hezkuntza erakundeen laguntza jasotzen ez badute. Izan ere, hauek ikastetxearen kudeaketan eta herriko edota komunitateko egitura administratiboetan lagunduko dute.

3. EHGII KONTZEPTU TEORIKO GISA

Atal honetan edukien eta hizkuntzen ikaskuntza integratuaren inplikazio teorikoak aztertuko ditugu.

EHGII ez da ama hizkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntza beste hizkuntza batera “itzultzea”. Metodo hau orain arte jarraitua izan da hezkuntza sisteman, eta zenbait kasutan oraindik ere, erabiltzen jarraitzen da. Metodo honetan ikasleak ez dira guztiz murgiltzen hizkuntzaren ikaskuntzan, gainazalean geratzen dira soilik. Gainera, irakasleek eta hurrek berak ama hizkuntzaren itzultze bat denez zailtasunak ez izatea espero dute.

Beraz, ez da irakasgai bateko eduki ezberdinak hizkuntzen ikaskuntza tradizionala progresio sistematikoaren eransketaren bitartez “mozorrotzeko” saiakera bat:

“Irakasleek, eduki eta hizkuntzen ikaskuntza integratua (ama hizkuntzarekin gertatzen den bezalaxe), hizkuntza ez den irakasgai bat hizkuntza gehigarri batekin irakastea baino gehiago dela aurkitu dute... Irakasleek edukiak eta ikaskuntzan integratutako hizkuntza ez dela bakarrik ez linguistikoa den materia beste hizkuntza gehigarri batean erakustea, ma hizkuntzan izango balitz bezala aurkitu dute... Ez da hizkuntza zuzentzailearen aldaketa soil bat” (Marsh, Enner and Sygmund, 1999:17).

Ikaskuntza guztiak zailak dira eta edukiak eta hizkuntza integratzearen potentziala ulertzea, martxan jartzen ari den ikerketa eskatzen du. Egoera

dinamiko batean elkarrekin lan egin behar da. Hala ere, EHGII ez du automatikoki potentzial honen burutzerak ekarriko. Bere ordean, bigarren hizkuntza edo hizkuntza gehigarri baten ikaskuntza integralaren bidez lortu daitekeenaren azterketa zorrotz bat egin behar da, marko teoriko kontzeptual batean oinarrituta.

3.1. EDUKIEN IKASKUNTZA ETA HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA LOTUZ

3.1.1. Edukien ikaskuntza

Ikaskuntzaren edukia kontutan hartzea abiapuntu erabilgarria da. EHGII testuinguru batean edukiak hartzen duen kontzeptua oso malgu da. Ohiko eskoletan geografiako, musika, biologia eta edozein irakasgaiko ikasketa plan baten aukeraketan suertatzen dena baino askoz ere malguagoa.

Irakasgai hauek EHGII eredu batzuetarako egokiak izan daitezkeen bitartean, testuinguruko aldagai batzuk, (hala nola irakasleen prestasuna laguntza hizkuntzan, ikasleen adina eta ikaskuntza inguruko eskakizun sozialek), eduki mota desberdin baten hautaketa egokiagoa izan daitekeela esan daiteke. Beste hitz batzuetan esanda, EHGIIan “eduki” hitza zehazki zer esan nahi duen, irakaskuntza instituzioaren testuinguruaren menpean egongo da.

Edukia curriculum nazionaletik hartutako elementuen emanetik, curriculumaren alderdi desberdinak biltzen dituen egungo arazoetan oinarritutako proiektu bat egitera alda daiteke (esate baterako, Joko Olinpikoak, berotze globala, ekosistemak).

